2. mailako Hirigintza: sarrera

GAIKAKO IBILBIDEKIN ERLAZIONATUTAKO HIRI-PROIEKTUAK

7. ariketa

Hiru plano A-1 landuko ditu talde bakoitzak, aurreko ariketako herri berdinetan.

Gaikako ibilbide bakoitzeko espazio publiko esanguratsu bat sortu edo osatuko da (kale, plaza, lorategi edo beste), haien inguruan hiri-proiektu bana garatuz. Lekua hautatzerakoan, lehentasuna izan beharko lukete espazio publiko eta ekipamendu eskasak dituzten auzoek. Talde bakoitzak, beraz, hiru hiri-proiektu proposatuko ditu:

1.- Kultura-ibilbidearekin erlazionatutako hiri-proiektua: Honako eraikuntza guztiak antolatuko dira espazio publiko baten inguruan:

- Anfiteatro estaligabea (harmaila batzuk), ikuskizun ezberdinak garatzeko (kontzertu txikiak, bertso-saioak, antzezlanak…). Forma librea da (biribilak, linealak, laukizuzen-formakoak…).
- Aldi baterako erakusketa-pabiloia (irekia ala itxia, baina estalia; 100-200 m^2 ingurukoa).
- Turismo-informaziorako kioskoa.
- Erabilera anitzetarako esparru eraikigabea (jaietako txosnetarako, azoka txikiak garatzeko…). Espazio publikoaren erdigunea izan daiteke, baita haren zati bat edo espazio osagarri bat ere.

2.- Kirol-ibilbidearekin erlazionatutako hiri-proiektua: Honako eraikuntza guztiak antolatuko dira espazio publiko baten inguruan:

- Bolatoki estalia.
- Skateboard *halfpipe* pista (edo beste motatakoa).
- Eskalada egiteko horma.
- Minibasket pista (20-25 x 12-15 m).

3.- Ibilbide geldoarekin erlazionatutako hiri-proiektua: Honako eraikuntza guztiak antolatuko dira espazio publiko baten inguruan:

- Parke lineala (luzetarako proportzioduna; tamaina, librea). Parkea bera izan daiteke eskatzen den espazio publikoa.
- Kafetegi-eraikin bakartua.
- Komun publikoak (kafetegikoez gain).
- Umeentzako jolastokia.

Aurreko ariketan zehaztutako ibilbideak aldatu daitezke. Talde bakoitzak zehaztuko ditu eraikuntzen tamainak, herriaren tamainaren arabera; jada eraikita edo proiektatuta dauden benetako ereduak erabili daitezke, helburua ez baita kafetegi edo bolatoki ederrak diseinatzea, baizik eta eraikin ezberdinen artean espazio publiko txukunak sortzea, hiriko egiturari zerbait eskaintzen diotenak. Zerbait eraistekotan, ondo arrazoitua egon beharko du.

Eskala librea da (proiektuak ondo azaltzeko beharrezkoak diren oinplano eta sekzio guztiak emango dira; ez ahaztu kokapen-planoak; 3 dimentsioko marrazkiak edo/eta maketen argazkiak ere eman daitezke). Planoak paperean (A-4ra profesionalki tolestuak) **eta** PDF formatuan emango dira (CD batetan, 300 d.p.i. kalitatearekin, ondo orientatuak eta izenburu adierazkorrekin, adibidez: "2. Bergarako kirol-ibilbidearekin erlazionatutako hiri-proiektua.pdf"; CDaren azalean taldearen izenak, herria eta irakaslearen izena errotulatuko dira; PDF edo plano bakoitzaren gehienezko pisua 10 megakoa izango da). Adierazi plano guztietan iparra, eskala grafikoa eta taldekideen izenak (tolesterakoan erakutsiko den A-4aren aurpegia kontuan hartuz).

Ariketak **otsailaren 7**ko eskolaren hasieran emango dira.

Donostian, 2010eko abenduaren 21ean

Irakasleak: Josemari Alkorta eta Unai Fdz. de Betoño